

www.noaua.com

Noaua!!!



Udarregi Ikastola,
eraikin berri baten bila



Andatzako BTT Taldeak antolatuta

Urtarrilaren 29an, mendi bizikleta irteera

URDAIRA
Sagardotegia
Sagardo naturala
 Urtsailaren 14an
IREKITZEN DUGU!
 astelehenak itxita

Aginaga
 943 37 26 91

Marka berriak
 aurkituko dituzu!

skunkfunk
 embrillolimon®
 PRIVATA

Marije
 Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

FRANTSES KLASEAK

Hou la la!
 ANIMA ZAITEZ!!!

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baina ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

AUKERA EDERRA DAUKAZU! ORAIN HASI GARA!

Astean zehar ordutegi ezberdinak aukeran goizez edo arratsaldez eta **aukera BERRIA!!!!** ezin badezu klasera etorri... eta zure maila ZERO edo GUTXI bada **INTERNET** bidez ikasi, (hilean behin aurkeztuta)

609 75 47 99 Usurbil

Sarreraren salmenta

bastero KULTURGUNEA
 SERIKUTIA KULTUZAPAK
 943 00 12 00
 www.kurba.net

Ron Lalá
Time al tiempo

URTARRILAK 27, ostirala, 21:30h auditorioan

ANDOAINO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia Info: 943.303.540 www.andoain.org

Albistea iruditan!**Aitor Aranguren,
Gipuzkoako
txapeldun pilotan**

Abenduaren 23a, Usurbilen jokatu ziren Gipuzkoako Banakako Pilota Txapelketako finalak. Alebin mailan Aitor Aranguren aginagarrak jantzi zuen txapeldunaren txapela. Finala Tolosako aurkariari irabazi zion: 8-0 eta 8-2.

Jende ugari San Silvestren

Hirurehunetik gora parte hartzaile bildu ditu Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketaren bigarren edizioak. Haur, gazte eta helduek, giro ederrean osatu zuten ibilbidea. Web orrian, noaua.com helbidean da lasterketaren inguruko bideoa ikusgai.



TOLOSAKO AURKARIARI IRABAZI ZION FINALEAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Ongietorri, 2012

Hasi da urtea. Badirudi bizkarrean motxilatar bat hartzen dugula urte berria estreinatzen dugun bakoitzean; eta urtarrila hil hotzegia da zama hori gainean eramateko. Kezkak ez dira falta, eta pozen bila hasten dugu, itxaropentsu, ziklo berria. Askok helburu antzu xamarrak jartzen dizkiote euren buruari. Nik ere behin egin nuen, eta hamabi egunetara amore eman nuen, ez dut halako promesa gehiago egin.

Orain, ordea, badirudi itxaropenerako tarterik badugula. Ez nabil soberan ditugun kiloez, erretzeari utzi beharraz, kirol gehiago egiteaz, edo gehiago irakurtzeaz hitz egiten. Gauza batzuk ez dira aldatzen, urteak pasatuta ere: Atxegalden argia joaten da misteriotsuki gau batzuetan, Olentzero txiki txiki egiten dute ez dakigu oraindik zergatik, haizea eta euria batera egiten du, gaizki ahoskatzen duten gizasemeek boto pila bat lortzen dituzte hauteskundeetan, eta unibertsitateko irakasleei lanak zuzentzea asko gustatzen zaie. Baina horiek beste kontu batzuk dira.

Inuzentea, optimistegia izango naiz, agian, baina

nik uste dut 2012ak aurrerapausoak ekarriko dizkigula euskal herritarroi. Nazioarte hona begira eta adi egoteagatik izango da. Pentsa nola litzatekeen egoera hala ez balitz.

Ez dut uste Aieteko Konferentziakoak pintxo bat jatearen truke edozer egiteko prest zeudenik, ez zebiltzan txantxetan, eta obra honetan parte hartzen duten gainontzekoek ere duten erantzukizunaren garrantziaz ohartu behar dute. Mitinetako esaldiak alboratu eta konturatu hemen busti egin behar dutela, berandu baino lehen egin ere. Lo hartzen duenak trena galduko baitu; nekez berrabiaraziko den trena, gainera. Hori uste dut nik, behintzat.

Bitartean bakoitza bereari eutsi behar gaude. Izanez gero, lanera joan, ikasi, kirola egin, estresatu, aspertu, inauteriak antolatu, sagardoaz gozatu... Eta garrantzitsuena, ahalik eta ondoen bizitzea. Uzten diguten, edo hobe, ahal dugun heinean. Pentsatu 2012a, agian, biziko dugun azken urtea izan daitekeela...

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Hilerriko erabilera araudia, aldatua

Usurbilgo hilerri berriko erregimen eta funtzionamendu araudiko laugarren aldaketa aho batez hasieraz onartu zuen udalbatzak, azken osoko bilkuran. Erabaki honek, Donostian errolatuak dauden zubietarrek ere usurbildarren tratamendu bera jasotzea ahalbidetuko du. Aurrera begira honenbestez, eta udalbatzak onarturiko diktamenean aipatzen denez, "Usurbilgo hilerrian enterra-

mentu aukera izango dute: jatorriz Usurbilgoak direnak (Donostian errolatuak dauden zubietarrek usurbildarren tratamendu bera izango dute); gutxienez 15 urtetan Usurbilen errolaturik egon direnek; eta Usurbilen errolaturik daudenak hiltzeko momentuan. Abenduaren 22an onarturiko proposamenari erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea zabaldu zen.

2010eko Kontu Orokorra, behin betiko onartua

Alegazioak aurkezteko zabalik Aegon eta inork erreklamaziorik aurkeztu ez ostean, gehiengo osoz onartu da 2012ko Kontu Orokorra. Bilduk behin betiko onarpenaren alde bozkatu zuen azken osoko bilkuran. Gainerako udal taldeak abstenitu ziren.

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Onartu dira 2012rako Ordenantza Fiskalak

Jendaurrean egon diren epean aurkezturiko bi erreklamazioak atzera botata, Bildu eta Aralarreko udal ordezkarien babesarekin, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko zinegotzien abstentzioekin eta Hamaikabat aurka zela, gehiengo osoz onartu ziren abenduaren 22an buruturiko urteko azken osoko bilkuran, 2012rako Ordenantza Fiskalak.

Oro har, datorren urterako prezio berriei KPIaren igoera aplikatuko zaie, %2,9a. Baina onarturiko igoeretan, badira zenbait salbuespen.

Honakoak:

1- Ondasun higiezinako zerga

-Industri eta zerbitzuen balio katas-tralaren igoera: %0,46.

-Beste erabileretarako (etxebizitza...): %2,13.

-Industri eta zerbitzu erabilerarako tipoa: %0,4895.

-Beste erabileretarako (etxebizitza...): %0,2065.

2- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

-Zilindrada oinarrizko eta txikia duten turismoak (12-14 zaldi) eta 250 c.c. arteko ziklomotoarak: %2,9.

-Hortik gora, zilindrada handitzen joan ahala: %4,6, %7,4 eta %9,4 arteko igoerak.

3- Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zerga: %5.

4- Hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzua

Merkataritza establezimenduetan



ABENDUAREN 22AN HARTU ZEN ERABAKIA, GEHIENGO OSOZ.

eta industria establezimendu eta merkatalguneetan erreusa unitatearen kostua gehitzen da.

5- Ongizatean

Autonomoak diren erabiltzaileen-tzat prezioa ez da igoko.

6- Udal bide publikoen lur, lur azpi edo lur gainaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia:

Kutzazain automatikoak eta salmenta makinengatiko tasa berriak.

7- Udaleku irekietako tasa jarri da.

8- Aldaketa zerga kudeaketa eta bilketaren ordenantzan

Alkate-lehendakariaren ordeztu, "kontuhartzaileak igorritako premiamendu-probidentziaren bidez hasten da premiamendu jarduera".

Etxebizitza bat gehiago, alokairu sozialerako

Duela bi urtetik hutsik egon den larrialdi egoeretarako udal jabetzako pisuetako bat alokairu sozialera bideratzera erabaki du udalbatzak gehiengo osoz. Maisu etxe ize-nez ezaguna izan eta Gernika ibilbidea 13an kokatzen den eraikineko lehen solairuko pisua da hain zuzen, gutxienez datozen 50 urteotan alokairura bideratuko den bizilekua. Aldaketa honek herritarren aldetik dagoen eskaerari erantzun asmo dio. "Larrialdi egoeretarako pisuetarako

eskaera urria omen da. Aldiz, alokairu sozialeko eskaria handitzen ari da", adierazi zuen alkate Mertxe Aizpuruak, abenduaren 22ko osoko bilkuran. Larrialdi egoerarik sortuko balitz, egoera honi aurre egiteko bermea eskatu zion Aralarrek.

Udalak bere jabetzako etxebizitza gehiago izanik, "berriz larrialdietara bideratu edo ez", halako egoerarik sortu balitz bizilekuoi zer erabilera eman aztertuko litzatekeela gaineratu zuen alkateak.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA



Javier Orbegozo

·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA

659 602 789

Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

KALEZAR

INMA BALDA

Urteko lehen kronika



Dagoeneko guztioi urteberri ona opatzeko garaia igaro zaigu, beraz, ez noa urte hasierako agurrarekin hastera. San Sebastian jaia gertuago dugu eta Urteberri On esatea ez da, ba, oso txukun geratzen hemen.

Baina urte berri bati hasiera eman diogu eta hori bai dela berria. Estreinatua izateak ematen duen zirrara oraindik ez zaigula pasa pentsa nahi nuke. Urte berri bat, egunez egun bizitzeko, geurea egiteko urte berria. Eta gauza berri guztiek bezala honek ere pozik jartzen gaitu: zoriontasunaren itxaropen apur batekin. Baina, hori nahikoa ote zorionsu egiteko?

Guk baino lehen, beste batzuk galdera berbera egin dute eta erantzuten saiatu. Ez dugu beraz ezer asmatuko, baina besteen ideiak hartuz geureak egingo ditugu. Hala, behin norbaitek esan omen zuen zorionsu izateko hiru gauza bete behar ditugula: zerbait egitekoa izan, norbait maitatzeko eduki eta ametsen bat desiratu.

Errezetak ez dirudi zaila. Zer eskatzen zaigu, ba, zorionsu izateko? Alde batetik, eginbehar bat izatea, hori betetzean gure alderdi sortzailea eta eraikitzailea erakusten duena. Gu geu gara protagonistak, egileak eta

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Urte berri on



Urte berri on denoi, zer moduz joan zaizkizue gabonak? Batzuei ongi, besteei ez hain ongi... Baina gehienei azkar pasa zaizkizuela ziur nago, urtea bezala. Urte berezia izan da joan zaiguna, bai auzoari dagokionez, eta baita bestela ere. Auzoan albiste izan da obren bukaera; frontoia, parkea... Aldaketa politikak izan dira, eta bistan denez behar genituenak. Urte bukaerarekin izan ditugu San Tomaseko txistorrada eta Olentzero ere, eta Ibai-Ondo elkartearen nahiko mugimendua ere izan dute mus txapelketa antolatzen eta baita hainbat barrikote ere. Esan behar da, nik dakidala behintzat, auzoko Olentzerok osorik iraun duela, dotore dotore lasto tartean, eta baita bere oiloek ere. Badakizue orain sagardotegi garaia hasten dela, eta izango dugula mugimendurik auzoan. Neure azken kronika idatzi nuenean, Aialde-Berri urez lepo zegoen eta txikizio handia izan zuten. Sagardoak ez zuen kalterik izan eta salbatu zen behintzat. Eta bukatzeko esan, urte gogorra omen datorrela, krisia dela eta ez dela, oraindik ere okerrera egingo duela... Horixe bera esaten zuten iaz eta urte honen bukaeran ere esango dute, eta bitartean batzuk poltsikoak betetzen, eta betikoek hustutzen, gauza batzuk ez dira inoiz aldatuko...



horrek betetzen gaitu. Bigarrenik, norbait maitatu behar omen dugu. Baina ez gaitzen konforma dagoeneko maite ditugunekin, zabal dezagun gure maitasun taldea pertsona berriak maitatuz.

Elkarri ematen diogunarekin aberastuko baikara. Eta azkenik, amets edo desio bat behar omen dugu, gure bizitzan helburu bat, gure pausoak norantz bideratu jakiteko.

Beraz, adiskideok, hiru gauza besterik ez ditugu zorionsu izateko eta urte osoa disfrutatzen. Ekin die-zaiogun hortaz!

KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Shhhhhh!



Urte berri on lehenik! Hasi dugu urte berria beste behin eta honekin batera, ikasle garenoi, iritsi zaigu hilabete inguruz apunte tartean bizi-rauteko momentua. Juxtu juxtu arnasa hartzeko parada dugu. Izan ere, gabonetan has gintezkeen ikasten, baina egun horiek ez dira ikasteko egunik onenak; festa egunak, senitartean egoteko egunak eta opariez gozatzeko egunak baitira gehienbat. Baina jada, pasa dira jai egun horiek guztiak eta benetan ikasten jartzea tokatzen zaigu orain. Horretarako, liburutegietara joaten gara gutariko asko eta asko, etxean edozein aitzakia aprobetxatzen baitugu ikasketez ihes egiteko. Liburutegian, ikasteko giroa sortzen da eta gu ere giro horretan murgiltzeko asmoz bertaratzen gara. Baina Usurbilgo liburutegian ez da lan erraza isiltasunean lan egitea. Goizetan, giro lasai eta isilean lan egitea posible da baina arratsaldean? Ezinezkoa. Haur guztiak ikastolatik atera eta sekulako soinua sortzen da. Ezinezkoa zaigu eroso ikastea. Nik beraz, beste hainbat gauzen artean liburutegiarentzako isiltasun pixka bat gehiago eskatzen diot urte berriari.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Arduratu zuen txakurrez



Ez da aurreneko aldia, argazkikoa gertatzen dela, Urdaira sagardotegiko alboan dagoen belardian. Bertan izan zaretenok, ikusiko zenituzten, bai ardi eta arkumeak, lasai-lasai larrean. Ez da erraza atzematea bakoitzaren txakurrak egin dezakeen kalteez, baina horrelako txikizioak egin ondoren, arrasto nabarmenak eramango dituzte txakur horiek beraien etxeetara eta orduan hartu beharko lirateke neurriak. Urdairako Patxiri azken urteetan dozena erditik gora arkume akabatu dizkiote txakurrek. Baina ez da kaltetu bakarra, Galdagorriko Xabier Orbegozori ere antzekoa gertatu zaio behin baino gehiagotan. Baten kasuan, ardiak izan dira kaltetu edo akabatuak, bestearen kasuan ahuntzak. Etxean denok dugu animalia izateko eskubidea eta gehienek oso ondo egiten dituzte lanak. Baina baserri edo larre inguruetan zabilizatenean, animaliak lotuta eramateko ohitura hartzea ere beharrezkoa da. Neurri hauek hartzea beraz, beharrezkoa, argazkian ikusten ditugunak bezalakoak gertatu ez daitezten. Eta deskuido z gure txakurrak horrelako pikardia egin baldin badu, gizalegezkoa da egindako kaltea ordaintzea: akabatutako ardiaren edo ahuntzaren jabeari aitortu egia eta kaltea pagatu.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Urteberri kolosala denoi!



Urteberri on denoi lehenik eta behin! 2012an gaude jada. Urte berezia askorentzat mila arrazoiengatik.

Beste askorentzat urte bat gehiago soilik, aurreko urteen zein atzetik etorriko direnen antzekoa, besterik gabe.

Norberak daki zein multzotan sartzen den. Nik badakit eta niretzat urtea berezietan bereziena izango dela dudarik ez dut!

Egun bat gehiago izango du ordea aurtengoak eta agian, urte berria hasi ohi denean zin egiten dugun hori, egin nahi dugun hura, eta inoiz betetzen ez duguna egiteko egun aproposa izango da berau.

Gure ametsei beteko ditugula hitza ematen diegu urterro, baina hauek beti geratzen dira hor, zain, "datorren urtean egingo dut" lelopean.

Aurten ez dadila hori gertatu. Urte berezia ala ez, aldaketa aro berri batean murgilduak gaude eta bagoaz, aspaldi egiten hasi ginen bideari jarraituz.

Urtarrilaren 7a Bilbon kolosala izan zen, ea 2012. urtea ere kolosala izatea lortzen dugun.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Urteak argitu egin du

Dena ez da krisia. Dena ez da beltza. Autobusa eta taxi-busa bada-biltza Zubietan barrena.

Goiko aldeko lanak martxan ari badira ere, sei hilabeteko geldialdia sinatu dute erraustegiaren eraikuntza atzeratzeko. Bada zerbait.

Bien bitartean Zubietan ere hondakinen atez ateko bilketa sistema jartzeko asmotan dira. Ez da erraza izango, eta lagundu egin beharko dugu. Negua ere epel eta ezti hasi du, bestelako lantu eta kexa goxatu nahiko balitu bezala.

Hau, noski, ez da ehiztarien mesederako izango, hegazti gutxiago izango baita bazterrotan. Baina besteok egur eta gasolio gutxiago erreko dugu: ez dago derrigor aurrezte bezalakorik.

Berotzeko: etorri datorren ostiralean, urtarrilaren 13an, iluntzeko 7:00etan Santa Agedako entsegu saiora. Kantuan garela berotu egingo gara, edo kantu ostean tabernan.

Dena ez da krisia. Grisetik badu bizitzak. Hala ere, autobusak badabiltza Zubietan barrena.



Zabalik da

Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea

Asteartez geroztik zabalik da Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea.

Aurrerantzean, Sexune elkarteko kide Elena Jimenez sexologoa Gizarte Zerbitzuetako egoitzan egongo da astean behin, herritarren kezka eta zalantzekin lagundu edota proposamenak biltzeko. Aholkularitza, sentsibilizazioa eta hezkuntza izango dira Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saitetik martxan jarri den zerbitzu berriaren bidez, jorratu nahi diren lan ildoak.

Elena Jimenez sexologoak, zabalik dagoen gune berria baliagarria zertarako izan daitekeen aipatzen du lerrootan, hainbat adibide jarrita.

-Haur bat oso txikia izan, eta ama berriz haurdun dago. Amaren sabelaz galdetzen hasten da haurra eta amak gaia azaltzeko zalantzak ditu.

-Nerabea aldaketa garai betean dago. Gurasoei ez die hitz egiten. Zer eta nola azaldu gurasoek, zer ez, noraino, nola egon ondoan laguntzeko...

-Gurasoek seme-alabei sexualitatearen inguruko liburu bat oparitu nahi diete: zer nolako liburua?, zein da aproposena?, zer dago merkatuan?...

-Desiraren norabidean suerta daitezkeen zalantzak eta ereduakiko zalantzak; mutilak ala neskek gustatu, markaturik dagoen emakume ereduak ez sentitzea, mutil femeninoa dut eta ez dakit nola jokatu...

-Zer da transexualitatea? Interesa piztu dezaketen gai honen eta beste batzuen inguruko informazioa eta sakontze lana.



GIZARTE ZERBITZUEN EGOITZAN, ASTEAN BEHIN IZANGO DA IREKITA.

ASTEARTERO

Aholkularitza gunekoek azpimarratu digutenez, alde aurretik hitzordua hartu behar da

Adin guztietako herritarrei zuzendua

Jendaurreko ordutegia hauxe da: asteartero, 17:00-19:00 (aurretik hitzordua eskatu behar da).

E-posta: sexuaholku@usurbil.net

Telefono zenbakia: 697 919 516.

Helbidea: Kale Nagusia, 43 behe (Gizarte Zerbitzuetako egoitza).

Eskaintzen den zerbitzua: informazio, formazio eta sexologia alorreko aholkularitza.

Nori zuzendua: adin guztietako herritarrei.



Patxi Seguroaren estradizioa aztergai

Asteazken honetan, urtarrilaren 11n aztertzeak ziren Parisen, estatu espainiarrak Patxi Seguroa herritarra estraditatzeko eginiko eskaera. Estradizio eskaeraren berri joan den azaroaren 16an eman zioten aginagarrari.

Autun herrian konfinatua

Seguroak ia urtebete darama frantziar estatuko Autun herrian konfinatuta, bere sorterritik 750 kilometrora. Bertatik ateratzea debekatua du eta egunero bitan Jendarmerian aurkeztu beharra du, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 17:00etan.

Egunak emandakoaren berri emateko, eta elkartasuna adierazteko batzarra deitua zegoen asteazken iluntzerako Mikel Laboa plazan. Informazio gehiago egunotan, noaua.com web orrialdean eta datoren urtarrilaren 20ko astekarian.

Euskaltegiak telefono zenbaki berria du

Etumeta-AEK euskaltegiak telefono zenbakia estreinatu berri du. Ahaztu beraz, orain arteko 943 372 001 zenbakia eta apuntatu berria, honakoa da: 607 629 379.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

ZABORTEGIRIK GABEKO AMETSAK

Askotan entzun dugu erraustegia ala zaborte-gia, bata eta bestearen artean aukeratu behar dugula. Argi eta garbi esan beharra dago, ez dagoela gaur egun zaborte-gia behar ez duen aukerarik. Ez Zero Zabor sisteman, ez errausketan oinarritzen denean. Errausketa ala zaborte-gia beraz, ez da alderake-ta zuzena. Nolako zaborte-gia nahi dugun da egin beharreko galde-ra. Zeintzuk dira orduan aukerak?

Ohiko zaborte-gi kutsakorrek:

Denok ezagutzen ditugu. Bereziki isurtzen duten kiratsagatik. Nahasian jasotako hondakinek betetzen dituzte zaborte-gi hauek, materia organikoa bertan ustel-tzen delarik. Ezaugarriak: kiratsa, gas isurketak, lixibatuak, plagak...

Errausketak behar dituen zaborte-giak:

Bakarrarekin nahikoa ez eta hiru zaborte-gi behar ditu.

Erraustutakoaren herena zabor toxiko bezala geratzen da. Gipuzkoan, urtean 90.000 tn zabor bidaliko lirakeke errauste plantatik zaborte-gietara. Hauek dira errausketak behar dituen zaborte-giak:

Atmosfera: Tximiniatik irtetzen diren gas eta konposatuak atmosferan zabaltzen dira. Hortik arnasaren eta elikadura katearen bidez gure gorputzetan sartu eta gaixotasun larriak eragiteko arriskua dago.

Eskoriantzako: Errausketa prozesuan sortutako konposatu toxikoe-kin kutsatuta egon daitezke. Erraustutakoaren %25 eskoria modura geratzen da.

Erraustentzako: Filtroek harrapatutako partikula toxikoz osatuta daude. Oso arriskutsak dira eta tratamendu eta zaborte-gi bere-ziak behar dituzte. Erraustu-takoaren %5 inguru izaten da.

Errefusategiak:

Gaikako bilketa eraginkorra



JATAKO ZABORTE-GIA.

egin bada, errefusa kopurua gutxitzeaz gain, errefusa horren izaera ere nabarmen aldatzen da. Birzikla daitezkeen hondakin atalak kenduta, materia organiko-a bereziki, zaborraren ezaugarri desatseginak desagertzen dira. Kopuruz txikia eta izaeraz garbia den errefusa horri, tratamendu mekaniko baten bidez geratzen zaion material birziklagarri apurra kendu eta tratamendu biologiko baten bidez egonkortu daiteke. Errefusategira beraz errefusa kopuru txikia eta inerte-a joango litzateke.

Txotx garaia martxan

Asteazken honetan inauguratu da 2012ko txotx garaia. Ospakizun ekitaldia, ohi bezala, Astigarragako Sagardoetxean burutzekoa zen. Ekoizpen prozesuaren nondik norakoen berri eman edota sagarrondo berri bat landatu ostean, Petritegi sagardotegian lehen bazkaria egitekoak ziren. Urtero moduan, Euskal Herriko aurpegi ezagun bat gonbidatua zuten ekitaldira. Oraingoan, Euskal Telebistako aurkezle Julian Iantzi. Bera izan da, lehenengo kupela ireki, "Gure Sagardo Berria" ahoskatu eta sagardoa edanez 2012ko txotx garaia ofizialki ireki-

tzeko ardura zuena.

Sagardotegien gidatxoa

Egunotan irekitzen joango dira sagardotegiak. Erreserbak egiten hasi nahi duenak, hona hemen inguruotako sagardotegietako telefono zenbakiak:

- Aginaga: 943 366 710.
- Aialde Berri: 943 365 031/ 670 027 731.
- Araeta: 943 362 049.
- Arratzain: 943 366 663.
- Astiazaran: 943 361 229.
- Saizar: 943 362 228.
- Urdaira: 943 372 691.



ZAZPI SAGARDOTE-GI IREKIKO DIRA TXOTX GARAIA, GURE INGURUAN.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

eraikuntzi@eustolnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Okidegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Eraikin berri bat behar du Udarregi ikastolak

Hasi berri duguna, urte garrantzitsua izango da Udarregi Ikastolarentzat. Eraikin berriaren premiaz aspaldi hasi ziren ohartarazten, baina aurrean hasiko du egitasmoak itxura hartzen. Joseba Pellejero Udarregi Ikastolako lehendakariak eman dizkigu xehetasun gehiago, ondoko elkarrizketan.

NOAUA! Azken urteotan, zahartuta eta txiki geratu dira Udarregiko instalazioak. Duela urte batzuetatik hona datozen kezka da, ezta?

Joseba Pellejero. Bai, hala da. Izan ere, azken eraikin berriari sartu ginenerako (1988an, Gernika Ibilbidea 11) txikia geratua zen; Hezkuntza Sailak 16 gelatako eraikina altxa zuen eta une hartako beharrei erantzuteko, 18koa behar zatekeen.

Urte haietan zehar, erabiltzen genituen eraikin eta espazioen birmoldaketak eta aldaketak eginez aurrera egin zuen Udarregik.

Orduko banaketa honokoa izan zen:

-Kale Zaharreko barrakoietan zegoen Haur Hezkuntza (2-6) Kale Zaharreko Mojetara aldatu zen.

-Kale Zaharreko Mojetan, HH-koekin batera zeuden 6tik 12 urte arteko ikasleak Ageri aldera pasa ziren.

-Dena den, une hartan Ageri Alden guztiak sartzea ezinezkoa zenez, 10 urte-tik 12 urte bitartekoak eraikin berriari kokatu ziren DBH-ko ikasleekin batera.

N. Eraikin berria non joango da, orain dagoen toki berean?

J. P. Eraikin berria 0-6 adineko ikasleentzat pentsatuta dago, eta horregatik, Ageri-Alde ondoan kokatzeko aukera hobetsi dugu, gaur egun bertan kokatua baitago Haur Hezkuntza (3-6).

Helburua da, 0-6 adin tramuko haurrak gunere berean egotea; eta hain zuzen ere, 4 solairutako eraikin berriari egongo lirake 0-3 eta 3-6 adinetako haurrak.

N. Ze ezaugarri izango ditu Udarregi berriak? Nolakoak izango da hezkuntza instalazioen mapa ikastola berriarekin?

J. P. Aurreko galderan aipatu bezala, 0-6 integratu baten aldeko apustua egiten du ikastolak. Jakitun izanik ere, integrazioa, prozesu luze baten emaitza izango



AGERIALDEKO ERAIKINA.

dela, horren aldeko apustu argia egiten du.

Ikuskerari honetatik abiatuta, hau da, hezkuntza eskaintza integralki egiteko xedez, gaur egun HH eta LH partekatzen duten eraikina, LHko ikasleentzat geratuko litzateke (6-12) eta DBHko ikasle guztiak Gernika Ibilbideko eraikinean kokatuko genituzke.

Era berean, Jangela eraikin berriari

kokatuko dugu. Aldaketa honek jangelaren beste planteamendu bat aztertze bide eman digu eta joan den ikasturte hasita, jangela- batzordeko gurasoak lanean ari dira egitasmo berriaren bideragarritasuna aztertze: janaria bertan prestatu, Haur Eskolan egun dagoen jangela ekologikoa, adin guztietara zabaltzeko proposamena, jangelako elikagaien hornitzea herriko dendariekin bideratu...

44 urtez, elkarlanaren bidetik

NOAUA! Instituzioen laguntza ezinbestekoa izango da. Zer dio Udaletxeak?

Joseba Pellejero. Zalantzarik gabe instituzioen laguntza, eta erantsiko genuke, ardura, ezinbestekoak zaizkigu.

Ez dugu ahaztu behar hezkuntzarako eskubidea, gizakien oinarritzko eskubide bat dela, eta eskubide hori bermatzeko eta garatzeko eskolek daukagun ardura alboratu gabe, Hezkuntza instituzioak direla ardura hori maila gorenean dutenak.

Hurbileko instituzioei dagokienez, herriko udalaren eta ikastolaren arteko harremana betidanikoa da.

Udarregi Ikastolaren 44 urteetako ibilbidean egondako gorabeheri aurre egiteko beti jorratu den bidea, elkarlanarena izan da.

Orain altxa nahi dugun eraikinari dagokionean, jada 2004. urtean ikastolak idatzi zuen txosten bat, zeinean espazioen eta behar fisikoen azterketa egiten zen; hastapenetako txosten honi, aldiari egokitzapenak egin dizkiogu, garai bakoitzeko behar hobekien eta

prozesuan zehar berritzen zihoazen asmoak islatzeko.

Txosten honen lanketaren ondorioz, udalaren eta ikastolaren artean hainbat akordiotara iritsi da.

Aipatu nahi dugu, Udarregi eraikin propiorik ez duela eta egiten duen hezkuntza eskaintza udalarenak diren eraikinetan gauzatzen dela. Hau horrela izanik, udalak laguntza handia eman dio hastapenetatik ikastolari eta garaian garaiko obrak, nahiz mantenu, hainbat hornitze eta garbiketa, udalaren gain egon direla. Zentzu honetan, Udalaren inplikazioa Udarregiko bilakaeran ezinbestekoa izan da. Honek ahalbidetu du ikastolaren bokazio publikoa sostengatzen eta bizirik mantentzen.

Hezkuntza Sailaren erantzuna ezkorra izan da, eta krisi garaioan egonik, epe motzera honelako inbertsioetan sartzeko asmorik ez duela aurreikusten entzun diogu. Bestalde, ikastoletako finantzazari dagokionean, eta orain arteko murrizketak kontuan izanik, ez dugu ikusten finantzatze berezien bidea jorratuko duenik.

“Kilometroak 2014 antolatzeke eskaera egin dugu”

NOAUA! Betidanik, ikastolen mugimenduak herri ekimenen babes behar izan du aurrera egiteko. Krisi garai hauetan, non instituzioak ere ez dabilta ondo, herritarren laguntza ere ezinbestekoa izango da ezta? Zer esango zeniekete?

Joseba Pellejero. Gaur egungo Udaregi ez da ulertzen aurreko 44 urteetan ikastolako proiektua babestu eta horretan inplikatu diren herritarrik gabe. Beti diogu Ikastola herritik sortu eta herriarentzat dihardugula eta horixe dela hain zuzen ere gure aberastasunik handiena.

Ikastola-kume izandako asko eta asko gaur egun guraso dugu; beste hainbat aitona-amona, ikasle ohia ... ezin konta ahalako erkidek, garairik zailenetan ere beren aletxoak jarri izan dutenak ikastolak aurrera egin zezan.

Horiek guztiak gogoan eta alboan edukita, jarraitu nahi dugu herriak behar duen eskola eraikitzen: auzo-lanean diharduena, hezkuntza eskubideen alde egingo duena, aniztasunaren isla izan dadin laguntzen jarraituko duena... Finean, banan-banan ezer gutxi garelako, guztion lana behar dugulako, guztiokin, guztiontzat, guztion ikastola, eraiki nahi dugulako...

N. Herritarren inplikazioa eskatzeko zein ekimen jarriko duzue martxan?

J. P. Herritarren inplikazioa une eta



SANTO TOMAS AZOKAN EGITASMOAREN BERRI EMATEN IZAN ZIREN UDARREGIKOAK.

maila ezberdinetan lortzeko eta gauzatzeko beharra aurreikusten dugu.

Ikastolaren aldetik, jada aipatu bezala, Kilometroak 2014ko antolatzaile izateko eskaera egin dugu, baina oraindik urte batzuk falta dira hartara iristeko; bitartean berriz, ekimen ezberdinak abiatuko ditugu. Alde batetik, proiektua herritarrazazi eta ezagutarazi nahi dugu, eta bestetik, diru-laguntzak biltzen joan apurka-apurka.

Ikasturte honetan zehar, ekimenetako plangintza xume bat plazaratuko dugu eta gustatuko litzaiguke beti sentitu ohi dugun hurbiltasuna oraingo honetan ere sentitzea herritarrengandik.

Zentzu honetan, pasa den abenduaren 18an ikastolako mahaia jarri

genuen frontoian ospatu zen Santo Tomas Azokan; bertan, eraikin berriaren maketa eta planoak ikusgai egon ziren.

Era berean, Ikastolako ibilbidearen esku-orria banatu genuen bertaratu zirenen artean eta bi otar zozketatu ziren bono batzuen truke.

Era honetako ekintzekin bi helburu bete nahi ditugu: proiektuaren transmisioa eta diru-laguntzak biltzea.

Beraz, urtariletik aurrera jarraituko dugu agerpen mota ezberdinak lantzen, eta esanda bezala, lerro hauek aprobetxatu nahi genituzke herritarren laguntza eskatzeko, bakoitzak ahal duen neurrian eta nahi duen intentsitatearekin inplikatu dadin proiektu honetan.

Eraikin berriaren giltzak, “2013ko irailerako”

Noizko egongo da eraikin berria irekita? Aurreikusitako data bat?

Aurreko galderetan irakurri ahal izan denez, egitasmoa ez da bat-batean sortutakoa, azterketa eta prozesu luze baten emaitza baizik.

Ikastola -proiektua etengabe osatzen eta ubide egiten doan proiektua da eta biziraun nahi badu, garaian garaiko beharrei erantzuten asmatu behar du.

Udarregik ibilbide oparoa izan du herriaren babespean eta hala izaten jarrai dezan nahi dugunez, aurrera egiteko prest gaude, gogoz, ekimenez eta konbentzimenduz.

Lehenago adierazitako premiaren

larriak behartzen gaitu eraikin berriaren giltza eskutan edukitzera 2013ko iraile-rako.

Nolakoa izango da prozesua? Ikasleek berdin-berdin jarraituko dute ikasten egungo ikasgeletan, alegia, eraikin berriaren obrek ikasleen martxan eragingo al dute ala ez?

Eraikin berriaren oinarritzko proiektua aurkeztua dago udalean eta urtarrilaren 16rako arkitekto taldeak Exekuzio Oinarritzko Proiektua aurkeztuko dio ikastolari; obretarako lizentzia eskatuta dago Udalean ... Urrats asko eman ditugu dagoeneko eta aurreikus-

penen arabera, 2012ko ekainean hasi behar da lur mugimenduekin.

Obretako lan handienak opor garaikin batera etor daitezten ahaleginduko garen arren, izango dira tarte batzuk obrak eta klase emateak batera etorriko direnak; izan ere, Ageri- aldeko eraikinean eta patioan zenbait obra eta eskuhartze egin behar baita.

Dena den, ez da lehenengo aldia izango honelako egoera batean aurkitu garena, eta bestetan egin ohi den moduan, obretako plangintza egokitu-ko da eta segurtasun neurriak hartuko dira ahalik eta deserosotasun gutxi-ena sor dadin garaia iristean.

“Guztion bultzadarekin lortuko dugu”

Krisi garaia bizi dugu eta horrek gizarteko arlo guztiei eragiten die. Baita hezkuntzari ere. Baina eraikin berriaren egitasmoak, berriki, auditoria baten onospena jaso du.

NOAUA! Ikastolaren barruan, gurasoek zer diote? Badute honen berri? Nola hartu dute eraikin berria egiteko egitasmoa?

Joseba Pellejero. Ikastolak, eraikin berria egiteari ezin dio muzin egin, toki gabezi larrian baikaude. Datorren ikasturtean bertan, LH laugarren mailan hiru ikastalde izango dira eta kokapen bat eman behar diogu behetik gora datorren hirugarren talde horri; orain arte espazioak berregokituz eman diogu irtenbidea arazo horri baina gero eta estuago gaude eta espazio librerik ez da geratzen... beraz, testuingurua oso aldekoa izan gabe ere, urratsak eman behar izan ditugu.

FINANTZIAZIOA

“Ikastolak bideragarritasun plana landu du eta finantza entitateen auditoria pasa du, erantzun positiboa jasoz”

Urratsak ematerako, eta ikastola guraso kooperatiba izanik, Artezkaritza Kontseilua ikastolako kudeaketarako gune garrantzitsua eta tamaina honetako erabakien motorra da.

Ikastolak bizi dituen une estrategikoe-



GURASO, HERRITAR ETA INSTITUZIOEN BULTZADA PREMIAZKOA DELA DIOTE.

tan, familia guztien ordezkari diren gurasoen inplikazioa funtsezkoa da eta oraingo honetan horrelakoa da.

Urratsez urrats

Pasa den ekaineko Batzar Orokorrean eraikin berriaren egitasmoari bultzada eman beharra azaldu zen eta ekainean eta uztailan zehar, Artezkaritza Kontseiluak erabakita eta Batzarrari azaldutakoari segida emanez, lehengo pausoak eman ziren arkitektoen kontratazioarako; segidan, aukeraketa eta kontratuaren formalizazioa etorri zen.

Udan zehar arkitekto taldea lanean aritu zen eta etengabeko harremanetan egon da AK kideekin lan honen jarraipen eta kontrolerako.

Irailean, Ikastolako ez-ohiko Batzarrean, eraikinaren aurreproiektuaren maketa ikusgai jarri zen eta kontratatutako arkitektoak honen gaineko azalpenak eman zituen.

Joseba Pellejerok adierazi digunez,

“eraikinaren beharra ikusten da, baina beldur pixka bat ere badago, krisialdiak eta honek eragindako egoera ekonomikoa dela eta. Zalantza hauen aurrean Ikastolak esaterik duena da, bideragarritasun plana landu duela Ikastolen Elkarteke Partaiderekin eta finantza entitateen aurrera joateko auditoria pasa berri duela, erantzun positiboa jasoz auditore- enpresaren aldetik”.

Guztion bultzadarekin

Bestalde, Ikastolak, finantzatze-iturriak bilatze aldera, “Kilometroak 2014” antolatze eskaera egin berri du Ikastolen Elkartean, eta Onura Sozialeko Erakundeek Inbertsio deialdietara aurkezteko duten aukera ere baliatuko du diru-laguntzetarako eskaria aurkeztuko duelarik egokitzen den garaian: “Erronka handia izanik ere, ilusioa pizteko akuilu ere bada; alde honetatik guztion bultzadarekin lortuko dugula sinesten dugu”.

Urtetik urtera, ikasle kopurua handitzen doa

NOAUA! Demografia datuek zer diote? Horrelako datuak ere kontuan hartu al dira?

Joseba Pellejero. Herriko demografiak gorantz egin du azken urteetan eta horrek eragin zuzena izan du eskolatzeko beharretan. Hala ere ez da izan aldagai bakarra; herrian bertan, ikastetxe bakarra ikastola izateak eragin du ere bai familiek beren seme-

alabak eskolatzeko unean.

Bestalde, 2008an ikastolak Usurbilgo Haur Eskolaren kudeaketa bere gain hartzeak zerikusia izan du hazkunde honetan, haur gehienek jarraitu ohi baitute ikastolan 3 urtetik aurrera. Momentu honetan Otik 16 urte bitarteko 783 neska-mutil daude Udarrekin, urtetik urtera kopurua hazten doalarik.

2007-2008 ikasturtetik, adin bakoitzeko 3 ikas-maila dugu; honek esan nahi du 2 lerroko ikastola izate-tik 3 lerroko ikastola izatera pasatzen ari garela; honek zalantzarik gabe espazio-beharrak areagotu eta dibertsifikatu egin ditu. Beraz, hazkunde datuak, ezberrik gabe, erabakigarriak izan dira eraikin berriaren egitasmoa bultzatzeko garaian.

Udazkenean Aralarren

Mendi buelta bat egitera joan ginen ikastolarekin, irteera Aralarra izan zen. Lekunberri herri-
tik pasa ginen, garai bateko Iruñeara
zihoan trenaren geltokitik paseo bat
emanaz herrira iritsi ginen eta ezagutu
genuen, zenbat etxe eder eta zenbat
armarri zeuden hain herri txikia izate-
ko, harritu gintuen.

Mendukilo izeneko haitzuloa bisita-
tu genuen, lehenengo, bideo batean
historiaz jabetu ginen, Burdin Arotik
(k.a. 900-300) artzainek abereak elur-
teetatik babesteko erabiltzen zuten
Koba, baina argi naturala jasotzen
duen sarrerako gelatik behera ez da
aztarnarik topatu. 1969ko udaran
espeleologoek eskutik, lehenengo
esplorazioak gauzatu ziren.

Barrura joatea oso esperientzia
polita izan zen, sagu-zahar mota
asko, bertan inoiz lehortzen ez den
laku bat, 6m-ko estalaktita, barrutik
hutsak dauden kolore zuriko egitura
batzuek, makarroiak deitzen zaienak,
kaltzio karbonatoz loditzen joaten
diren estalaktitak, putzu mailakatuak
edo gours-ak, guzti hauek ikusi ahal
izan genituen, esan zigutenez, troglo-
bioak, intsektu prehistorikoak, ba
omen daude.

Bazkaldu eta laster abiatu ginen San
Miguelako Santutegira, zuzenean
aldapa gora eta baso eder bat zeharka-
tuz iritsi ginen goraino, neketsua izan
zen ibilbidea, esan behar da ondo
batzuek hartu genituela.

Santutegia oso polita zen eta bertan



SAN MIGUELEKO SANTUTEGIAN.

Teodosioren istorioa kontatu zigu-
ten, urrezko erretablo bat zegoen
harri bitxiz betea, hiru aldiz lapurtua
izan da baina oraindik monasterioan
segitzen du ia osorik. Orokorri egun
hori oso ederra izan zen.

DBH2ko ikasleak

Familiaren garapen ebolutiboari buruzko saio gehiago, datozen hileotan

Hitz Aho Udaregi
Ikastolako Guraso
Elkarteak familiaren gara-
pen ebolutiboaren inguruan azaroan
antolatu zituen tailerrak luzatzea era-
baki du. Familiaren eboluzioa, hau-
rraren garapen ebolutiboa, familiaren
garapena eta garaian garaiko kezka eta
beldurrak, ilusio eta pozak, arriskuak
eta indarguneak hizpide zituzten saio-
ek jarraipena izango dute, 2012ko
lehen hileotan.

Saioak Izar Arregi psikopedagogoak
zuzenduko ditu. Hitzorduotan egoteko
lehenasuna azaroko tailerretan parte
hartu zuten gurasoek izango dute,

nahiz Hitz Ahotik berri eman dutenez,
gainerako herritarrak ere bertara daitez-
keen tailer hauetara. Saioak hain zuzen,
HH, LH eta DBH zikloetako ikasleen
gurasoei zuzenduak daude. Izen ematea
zabalik dago, hitzaho@udarregi.com
helbidean.

Tailerren egutegia

Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan
hasi eta ordu eta erdiko iraupena izan-
go dute. Ohi bezala, ekitaldi bakoitzak
iraun artean, zaintza zerbitzua izango
da. Tailerrak Udaregi ikastolan buru-
tuko dira. Egunotan:

HH-ko saioak: otsailak 6, martxoak
5, apirilak 2 eta maiatzak 7.



IZAR ARREGI PSIKOPEDAGOGOAK
ZUZENDUKO DU TAILERRA.

LHko saioak: otsailak 7, martxoak 6,
apirilak 3 eta maiatzak 8.

DBHko saioak: urtarrilak 26, mar-
txoak 1, martxoak 29 eta maiatzak 3.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Josue

Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL



ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Mendi bizikleta irteera urtarrilaren 29an, Andatzako BTT Taldearen eskutik

Asteburuan bizikleta hartu eta mendira joateko plana norbere kontutik egin beharrik ez dago jada. Orain arte, sakabanatuak zeuden kirol jarduera honetako zaletuak bildu eta irailaz geroztik taldea osatua dute Andatza Mendizale Elkartearen baitan. BTT Taldea dugu. Bilguneak bere lehen ekimena ere deitua du jada. Zeharkaldia antolatu dute urtarrilaren 29rako, Andatza inguruetan. Elkarriketa honetatik haratago informazio gehiago jaso nahi duenak, adi andatza.com web orrialdeari, asteotan bertan emango baitituzte aipatu ekimenari buruzko zehaztasun guztiak. Parte hartzera animatzen dute antolatzailleek.



32 KILOMETROKO IBILBIDEA OSATUKO DUTE.

NOAUA! Zergatik erabaki zenuen taldea osatzeko pauso hau ematea? Zer onura ekarri dizue taldean biltzeak?

BTT Taldea. Errazago gelditzen zara kirola egiteko. Motibagarriagoa da eta giro polita sortzen da. Mendian bizikletan bakarrik ibiltzea ere arriskuetsuagoa da. Matxura aldetik ere, beti laguntzeko jendea dago.

BTT TALDEA

“Ez da beldurrik izan behar azkena joategatik. Gustura ibiltzea da kontua”

N. Zer maiztasunarekin biltzen zarete?

BTT Taldea. Larunbatetan ez bada igandetan, edo bestela bi egunotan. Oporraldian, baita astean zehar ere.

N. Irteerak aldez aurretik planifikatzen dituzue?

BTT Taldea. Momentuan inprobisatzen dugu. Beti hemen inguruan izaten da. Denbora mugatua dugu zeharkaldiak egiteko. Hiru bat orduko buelta egiten dugu inguruotan.

N. Zuen taldera gerturatzeko interesa izan dezakeenak, aldez aurretik prestatua egon behar al du derrigor?

BTT Taldea. Gure filosofia ondo pasatzea da, ez da lehiatzea. Gure erritmoan joaten gara, baina aldapa egokitu eta norbait atzean geratzen bada, beti itxaroten dugu.

N. Zer bereizgarri ditu mendi bizikletan aritzeak?

BTT Taldea. Mendiko pistetatik joateko aukera, mendian eta lokatz tartean, basoan. Gehiago gozatzen da, dibertigarriagoa da. Errepidea arriskuetsuagoa izan liteke, baina mendian norberak jartzen du arriskua. Paisaiak gehiago gozatzen da. Beste askatasun bat ematen du, mokadutxo bat egiteko geldituta ere arazorik ez.

N. Andatza Mendizale Elkarteko taldea izanik, gerturatu al zaizue mendizalerik zuenera, eta alderantziz zuen taldetik mendi irteeratar joaten zarete?

BTT Taldea. Lotuak daude biak. Gu lehen mendian ibiltzen ginen baita, orain ordutegia mugatua dugunez, bizikletan ibiltzen gara. Asko egongo dira mendian eta bizikletan ibiltzen direnak.

N. Lehen hileotako esperientzia zer nolakoa izaten ari da?

BTT Taldea. Zenbat eta gehiago ibili orduan eta gehiago lotzen du kirol jarduera honek. Bestalde, nahiz hasieran gehiago kostatu, ohitura falta duenarentzat gogorragoa izan, aldapa gora joatea kostatu, taldekideek itxaroten diotela ikusten badu, animatu eta beste igande batean berriz ere etorriko da. Ez da beldurrik izan behar azkena joategatik. Gustura ibiltzea da kontua.

Irisasi

BTT trabesia 2012

Eguna: urtarrilak 29, igandea.
Ordua: 9:00.

Irteera/helmuga: frontoia.

Ibilbidearen luzera: 30-32 km.

Izen ematea: frontoian, proba hasi aurretik. 10 euro federatuek, 15 euro federatu gabe daudenek.

Informazio gehiago:

www.andatza.com

Antolatzailea: Andatza Mendizale Elkartea, BTT Taldea.

“Ez da lehiaketa bat”

NOAUA! Talde bezala ezagutzera emateko ere baliagarria izango zaizue hilaren 29ko proba?

BTT Taldea. Herri mailan ez zegoen halako talderik. Garai batean bazen, Dana Ona errepidean. Duela 20 urte, DYaren bidez mendi irteerak antolatu ziren, pare bat zeharkaldi. Orain Buruntzapzi eskola hor dago, baina ez mendian. Jendea ikusten da, taldeka edo banaka bere kontutik nola ateratzen den mendira. Denak bildu eta antolatzea da geure asmoa.



GIRO ONEAN IBILTZEN DIRA
IRISASI BTTKO KIDEAK.

BTT TALDEA

“Paseo polita izango da.
Ez da izango irabazlerik.
Hamaiketako on bat
emateko asmoa dugu gero”

N. Urtarrilaren 29ko zeharkaldia edonork egiteko modukoa da?

BTT Taldea. Ibilbidea ez da gogorra, baina zenbait tokitan teknika pixka bat behar da jaitziera bat edo beste egiteko. Bide zati motzak dira ordea. Teknika hori ez duenak ere, erraz asko egin dezake zeharkaldia. Bizikletatik jaitzi eta bide zati horiek oinez egin ditzake.

Ez da lehiaketa bat, zeharkaldi bat baizik. Ez da lehiatzeko, ondo pasatzeko. Paseo polita izango da. Ez da izango irabazlerik. Hamaiketako on bat emateko asmoa dugu gero partaideei. Hainbat zozketa ere egingo ditugu partaideen artean. Irekia da herri-tar ororentzat, nahiz federatu izan edo ez izan. Dena aseguratu egongo da, ibilbidea markatuta eta lasai etor daitezela.

N. 150-200 partaide espero dituzue. Halako aurreikuspena egiterako, mendi bizikletarako zaletasuna egon badago beraz inguruotan?

BTT Taldea. Batzuk motz geratuko garela diote. Poztu egingo ginatke motz geldituko bagina, okerragoa izango baita 50 bakarrik joatea. Herrietako zeharkaldi txikietan zenbat partaide biltzen diren jakinda jarri dugu neurri hori.

N. Taldea irekia denez, interesa duenak zer egin beharko luke zuengana gerturatzeko?

BTT Taldea. Hitzordu finkoa izaten da, goizeko 8:00etan gelditzen gara larunbat edo igandeetan, beheko errotondan. Taldea edonorentzat irekia dago. Nahi duenak etor dadila.

N. Proba egunerako laguntzaileak behar dituzue. Zer lan egiteko?

BTT Taldea. Batez ere bide gurutzeetan egoteko litzateke. Jada taldetxo bat osatua dugu. Boluntariorik laguntzeko prest bada, bidal dezala e-mail bat izen abizen eta telefono zenbakia-ekin andatzabtt@hotmail.com helbidera. Beti eskertzen da laguntza.

Yoga eta sabel dantza

Urtarrilaren 16tik ekaina amaierara arte, bi ikastaro berri martxan jartzeko asmoa du Kirol Patronatuak; yoga eta sabel dantza saioak hain zuzen. Astelehenean sabel dantza ikastarotan interesa zutenek jarduera probatzeko aukera izan zuten. Ostegun honetan beste hainbeste egiteko aukera egongo da yoga ikastaroarekin. Aipatu kirol jardueran trebatzeko interesa duenak, hilaren 12an proba egin dezake, arratsaldeko 16:00etan edo 18:30ean. Ikastaro hauetan parte hartzeko gonbita luzatua du Kirol Patronatuak: “Ekintzak gaitutako irakasleak emango ditu eta esperientzia berri on eta atseginak probatzera animatzen zaituztegu!”. Antolakuntzatik ohartarazten dutenez bestalde, ikastaro hauek martxan jartzeko beharrezkoa izango da, “Kirol Patronatuak ezartzen duen gutxieneko partaide kopuru batek izena ematea”.



URTARRILAREN 16TIK EKAINA
AMAIERA BITARTE, KIROLDEGIAN.

Urtarrilak 14 larunbata

Eskubaloia

16:45 Kadete neskek, Euskal Liga:
Usurbil KE-Galdona Burdindegia Pulpo

18:15 Jubenil neskek, Euskal Liga:
Usurbil KE-Talaipeta Jatetxea Pulpo

19:45 Senior neskek, Euskal Liga "A":
Atez Ate Usurbil-Quiron Askartza.
Tokia: Oiardo Kiroldegia.


Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

BENTĀ TABERNĀ
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Andoni Errazkin
Xukin
igeltzeritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Arazo larri bat

Gaur egun etxebizitzarako sarbidea euskal gizartearen arazo larrienetakoa dugu. Etxebizitza Eskubidea urratuta dago Euskal Herrian, bere bermatzea instituzioen ardura da. Eskubide hau betetzeko zenbait faktore bildu behar dira: borondate politikoa, baliabideak, ekintzak. Elementu guztiak dira nahitaezkoak. Instituzioek, garai honetan, horietako bat dute eztabaidagai: aurtengo aurrekontuak.

EAEen Etxebizitza Sailerako aurreikusten zen gastua (2007) 185 milioi eurokoa zen eta Nafarroako Foru Erkidegoan 78 milioi. Gobernuak lurralde bakoitzaren BPGren %0,32 eta %0,53ko esfortzua egin zuten, zenbaki hauek aurrekontu osoaren %2,1 eta %2 zirelarik. Beraz, datu hauetatik ateratako ondorioa argia da: erabilitako baliabideak ez zaizkio arazoari egokitu.

Bestetik, gastu hau beste oinarriko eskubide batzuen betetzerako erabiltzen denarekin alderatu dezakegu. Hauen gastuek, nahiz eta behar bezala bermatuta ez egon, aurrekontuetako zati nabarmena hartzen dute. Osasunari dagokionez, gastu hau aurrekontuaren %33a zen EAEen eta %23a Nafarroan. Hezkuntzaren kasuan bestalde, ehuneko hauek 26 eta 16koak ziren. Etxebizitza maila bereko oinarriko beharra da, baina aurrekontuetan lehentasun moduan islatzen ez dela agerian gelditzen da.

ETXEBIZITZA

“Alokairu sozialaren aldeko apostua egiten dugu, biztanle guztiei etxebizitza duina bermatu ahal izateko”

Hala ere bestelako gastuek, militarrek adibidez, lehentasun handiagoa omen dute. Izan ere EAE eta Nafarroak kupoaren bitartez 1.825 milioi euro transferitu zizkioten Espainiar estatuari, hau da, Hego Euskal Herriko BPGren %2,4, dirutza horren zati bat gastu militarretan xahutu zelarik.

Baina etxebizitzaren arazoaren ardu-



EGUBERRIETAN HIRU EGUNEKO KANPALDIA EGIN ZUTEN DEMA PLAZAN.

ra ez da gobernu autonomoena bakarrik. Instituzio guztien parte hartzea beharrezkoa da, baita hauen politiken aldaketa ere. Udalei dagokienez, ardur nabaria da: baliabide ekonomikorik ezaren aitzakia erabiliz, asko pisuen garestitze prozesuaren beste eragile bihurtzen dira (besteak beste, lur publikoaren salmentaren bitartez). Maila guztietako espekulazioen amaiera lortzen ez dugun bitartean, ekimen publikoa etxebizitzarako sarbidean egongo den beste eragozpen soil bat izango da (paradoxa izugarria).

Egoera bidegabera

Honi aurrekontuen bitartezko beste bidegabekeria gehitu behar zaio. Hots, egun etxebizitzako gastu fiskala gastu zuzenaren bikoitza da. Zentzu honetan, desgrabazioek 414 milioi euro suposatuko dituzte EAEen eta 138 Nafarroan. Hau da, babestutako etxebizitzaren sustapenaren eta bestelako programen bitartez merkatuan

esku hartzera zuzendutako euro bakoitzarengatik, bi euro gastatzen dira dedukzio fiskaletan (gastu fiskala guztira 7.585 milioi eurokoa da). Eta hau bidegabera dela bi arrazoiengatik diogu: batetik, norbanakoon patriketatik esku pribatuetarantz eginiko diru transferentzi bat delako, hura etxebizitzan zuzen esku hartzeko erabili beharrean; bestetik, etxeen garestitzea ekartzen duelako.

Borondate politikoaz

ITAYA-ko kideok alokairu sozialaren aldeko apostua egiten dugu, biztanle guztiei etxebizitza duina bermatu ahal izateko. Alokairu parke publikoa, eta honen errenta maizterren diru sarreraren arabera kalkulatu. Honetarako dirua beharrezkoa da – hala esaten dute – baina ez dago. Ez da egongo, etxebizitzak aurrekontuetan lehentasunik ez duen bitartean, errealitatea eraldatzeko behar besteko baliabideak erabiltzeko borondate politikorik ez dagoen bitartean.

Agenda!

Urtarrilak 15 igandea

- Horton, haurrei zuzendutako pelikula 17:00etan Sutegin.
- Oroitarria dokumentala Sutegin (Horton pelikularen amaieran).

Urtarrilak 19 osteguna

- Udarregiko ikasleen danborrada HH mailakoak: 15:45-16:15, Agerialdeko patioan.
- LHko mailakoak: 16:00-16:30, beheko ikastolako plazaan.

Urtarrilak 29 igandea

- Mendi bizikleta irteera 9:00etan frontoitik.

Goardiako farmaziak

Urtarrilak 12, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 13, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 14, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 15, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 16, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urtarrilak 17, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 Lasarte

Urtarrilak 18, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urtarrilak 19, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urtarrilak 20, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 21, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 22, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.

Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

“Oroitarria”, 1978ko San Ferminetako iskanbilak gogoan dituen dokumentala

Igande honetan, "Oroitarria" izeneko bideo proiektzioa antolatatu du Itaya gazte taldeak. Haurren pelikularen ondoren eman-go dute Sutegin.

“Pelikula honen emanaldia Argia Kultur Elkartearekin batera antolatu dugu eta 1978ko San Ferminetan gertatutako iskanbilak eta German Rodriguez-en heriotzaren berri ematen digu. Gertaera adibide bezala hartuta, Trantsizioko gizartearen berri ematea da gure nahia egungo belau-naldiei pentsarazteko eta garaikoak oroitzeko”, hala dio Itayatik igorri diguten oharrak. Proiektzioa “Horton” pelikularen ondoren izango da.



OROITARRIA DOKUMENTALAREN AZALA.

San Sebastian bezpera, Udarregin

Astebete barru itzuliko dira Adanbor hotsak Donostiara. Urtarrilaren 20an ospatuko da San Sebastian eguna Gipuzkoako hiriburuan eta beste zenbait udalerritan. Lehen danborrada saioak ordea, alde zuzenetik entzun ahal izango dira Usurbilen. Udarregi ikastolako ikasleek urteroko emanaldiak eskainiko dituzte, hilaren 19an.



Igandean, “Horton” filma haurrentzat

Haurrei zuzenduriko komedia filma, igande honetan. Emanaldia, arratsaldeko 17:00etan hasiko da Sutegin. Sarrerak 2 eurotan egongo dira salgai, egunean bertan.

Gabonetako argazkiak

Eguberri hauetan atera ditugun (eta ekarri dizkiguten) argazkiak noaua.com web orrian ikus ditzakezue, Argazkitegia atalean, “Gabonak 2012” izeneko karpeta.

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre

ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Errazkin S.L.
igeltzeritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net

kale nagusia 47, behea A



TXOTX!!!



TXOTX! IREKIERA- URTARRILAK 14, LARUNBAT GAUA
DASTA EZAZUE SAGARDETEGIKO MENUA OSATZEN DUTEN
BOST PINTXO ETA TXOTXA

Gainera, txotx garairako sagardotegi menurako deskontuak lortuko dituzu!

5€

Sagardotegiko menuak, karta, ezkontzak, menu bereziak.....

943 362 049-943 366 604 Fax 943 366 073 www.araeta.com ZUBIETA

Interneten ere aurkituko gaituzu NOAUA! Usurbildarron zerbitzura

<http://www.facebook.com/noaua>

Twitter
<http://twitter.com/noaua>

Facebook

Twitter feed content:
noaua noaua Aste honetan aztertuko dute Pabi Seguroia herritarren estradizio eskaera noaua.com/?atala=albiste...
noaua noaua Asteartean zabaldu zen Sexu Aholkularitza Gunea, Gizarte Zerbitzuetako egotzian noaua.com
noaua noaua Bihartik aurrera, Ikantzu Taldea bertiz ere lanean noaua.com/?atala=albiste...

Facebook post content:
noaua noaua...
noaua noaua...
noaua noaua...

TXOTX!!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



Tel: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731 Santuenea

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian **IREKITA**
Astelohenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserría **Ereñotzu - Hemani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: **616 287 867**



SAIZAR
Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • **USURBIL** • **Tel. 943 362 228**
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • **943 55 69 81**

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Sagardo ekologikoa



Arratzain Baserría
info@agroturismoarratzain.com
Tel: 943 36 66 63
20170 USURBIL

943 36 12 29



iruvin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

AGINAGA
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik



ESTRATA kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxa: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com